

Sanjurjo eta (im)Mola zio

Hanpuruseria poetiko epikoan saiatuz ibiliko zen norbaitek sortuko ote zuen “Covadonga Berria”rena, espainiar II. Errepublikaren garaietan, eskuineko tradizionalistaren batek. Historikoki, badakigu horrelako poesia epiko eta mistikorako bere burua dohaindutzat zuen Maximo Ortae unzuetararak, ordurako *La Tradición Navarra* egunkariko zuzendari ohia berau, erabili zuela poema batean 1934an.

Hego Euskal Herriari egokitu zion izendapena eskuin tradizionalista hark, seguruenik Euskal Estatutuaren barnean legedia errepublikano laikoaren despit Vatikanorekiko harreman diplomatiko propioetarako eskumena planteatu zen garaietako giroan, 1932tik aitzina. Gero, Francok, Molak eta Sanjurjok gerra piztuta, Nafarroari egokitu zioten bereziki. Bidenabar eta bitxikeria gisa aipatzeagatik, Asturiaseko fronte errepublikanoan komunistek ere erabili zuten artikulua batean gutxienez Covadonga Berriarena, Asturiasetik Espainia errepublikanoaren birkonkistaren beharra gogoan, fronteko bihotz asturiarrak berotu nahian.

Don Pelaioaren, Covadongako Ama Birjinaren eta Birkonkistaren mito nazional-katoliko gisa iraun du hainbat burutan gaur arte, eta Nafarroa Garaian bereziki, horrelako erramoldeak. Eta



Bixente Serrano Izko

IDAZLEA
@Bixentesi

UPNren garaiak ziren, uste zutenean den-denak jarraituko zuela paraje hauetan “sekularki”, klerikalismoaren eskuetan. Horren barnean, jakina, Francoren gurutzadaren aldeko memoria ukitu ezina. Aldatu dira gauzak, ordea

horretan tematatu nahian jarraitzen du, antza denez, Perez Gonzalez Iruñeko apezpikuak. Ez zuen eskola militarra alferrik galdu 2003-2007 tartean Apezpiku Militarra izan zenean eta bere hurrengo apezpikutzat, 2007tik hona,

nazional-katolikoaren ustezko Covadonga Berri honetan eman zioten.

UPNren garaiak ziren, uste zutenean den-denak jarraituko zuela paraje hauetan “sekularki”, *in sæcula sæculorum*, klerikalismoaren eskuetan. Horren barnean, jakina, Francoren gurutzadaren aldeko memoria ukitu ezina. Aldatu dira gauzak, ordea, eta apezpiku militar ohiak noizbait hartu beharko zuenik uste ez zuen papera hartzera beharturik ikusi du bere burua, bere ustezko Covadonga Berri honetako apezpiku gisa orain: alegia, Gurutzada Saindu hartako Sanjurjo eta *Mola* martiri(tzaile)en erlikiak euren orain arteko aldare-hilobian mantentzeko misio sagaratua. Lege-trikimailuak, frankismo garaietan apezpikutzari eman omen zioten auskalo zein eskubide astindu du oraingoz XXI. mendeko Birkonkista kausaren gurutzu berriak. Frankismoaren legedia betetzeko eskatzen ari da.

Egia erran, hitzik gabe ni neu Perez Gonzalezen jarrera gaitzesteko hainbatek erran dutenei gehitzeko, zain nago apezpikua lege-trikimailu frankistetatik bere eskumen kanonikoetara noiz pasatuko: erran nahi baita, Joseba Asironi, udal alkatezari sostengua ematen diotenak, nafar gobernu osoa, eta udal erabakiaren aldeko kristo oro eskumikatzerara. ■

Xilaba

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO

BERTSULARI XAPELKETA

2016

www.bertsozale.eus/xilaba

AIZIRITZE

Herriko gelan

Urriaren 22an, 17:00etan

Aurkezlea: Pettan Prebende

Baigorriko lehena

Izturitzeko bigarrena

+ Puntuazioaren arabera:

Lehena / Hirugarrena

Bosgarrena / Zazpigarrena